


Euskal AEko industria-prezioek % 1,7 egin dute behera 2023ko uztailean, aurreko hilaren aldean

2022ko uztailarekin alderatuta, industria-prezioek % 5,0 egin dute behera

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko industria-prezioek % 1,7 egin dute behera 2023ko uztailean, aurreko hilaren aldean. Uztaileko urtearteko tasak, hau da, azken hamabi hiletan industriako prezioek izandako aldakuntza jasotzen duen tasak, % 5,0 egin du behera.

Zehatzago aztertuta, agerian geratzen da 2023ko uztailean honako sektore hauek izan dituztela prezio-jaitsierarik nabarmenenak: *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 10,0 gutxiago); *Zurgintza, papera eta arte grafikoak* (% 4,1 gutxiago), eta *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza* (% 3,6 gutxiago). Aitzitik, honako sektore hauek izan dituzte hiletik hileraz prezio-igoerarik handienak: *Koke-lantegiak eta petrolioaren finntzea* (% 3,9 gehiago); *Elikaduraren, edariaren eta tabakoaren industria* (% 2,2), eta *Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa* (% 1,3).

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Ondasunak helburu ekonomikoaren arabera sailkatuz, *Energiaren* prezioak % 4,0 jaitsi dira 2023ko ekainaren aldean. Bestalde, *Bitarteko ondasunen* prezioak % 1,4 jaitsi dira, eta *Ekipo-ondasunenak* % 0,7. *Kontsumo-ondasunen* prezioak, aldiz, % 2,2 igo dira. Izan ere, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* prezioak % 2,6 igo dira, *kontsumo-ondasun iraunkorren* prezioak % 0,2 jaitsi direlako.

Urtetik urterako ehunekoetan, 2023ko uztailean, 2022ko uztailaren aldean, honako adar hauetan jaitsi dira prezioak nabarmenen: *Koke-lantegiak eta petrolioaren fintzea* (% 26,6); *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 21,3), eta *Industria kimikoa* (% 4,7). Aitzitik, urtetik urterako ehunekoetan, prezio hauek igo dira gehien: *Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria* (% 12,1); *Ateratze-industriak* (% 10,8), eta *Kautxua, plastikoa eta beste produktu mineral ez-metalezko batzuk* (% 10,1).

Euskal AEko Industria prezioen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Uztaila 2023

	INDIZEA	ALDEAREN %	
		m / m-1	m / m-12
INDIZE OROKORRA	127,9	-1,7	-5,0
SEKTORE-BANAKETA			
Ateratze-industriak	122,0	-0,1	10,8
Manufaktura-industria	128,4	-0,2	-1,8
Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria	133,4	2,2	12,1
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza	108,6	-3,6	5,7
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	143,3	-4,1	5,0
Kokeak eta petrolioaren fintzen	134,9	3,9	-26,6
Industria kimikoa	146,7	-1,5	-4,7
Botiken fabrikazioa	128,0	1,2	4,2
Kautxu eta plastikoa, beste produktu mineral ez-metalezkoak	120,4	-1,1	10,1
Metalurgia eta produktu metalikoak	138,0	-1,4	-2,1
Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa	122,3	1,3	1,3
Material eta ekipoen fabrikazioa	116,8	0,0	3,5
Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	115,1	-0,2	5,0
Garraiorako materialen fabrikazioa	111,7	-1,1	6,4
Altzariak, beste manufaktura-ind., konponketa eta instalazioak	120,8	0,6	6,6
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	125,1	-10,0	-21,3
Ura	132,6	0,5	8,5
INDUSTRIA-SEKTORE HANDIEN ARABERA			
Kontsumo-ondasunak	130,5	2,2	10,7
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	117,8	-0,2	6,3
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	132,7	2,6	11,4
Ekipo-ondasunak	117,8	-0,7	4,8
Bitarteko ondasunak	133,7	-1,4	1,2
Energia	131,7	-4,0	-24,9

Oinarria 2015=100

(p)Behinbehineko datuak

m / m-1: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2021eko Abenduaren 20a

Iturria: Eustat. Industria Prezioen Indizea

Prezioen aldaketa, urtetik urterako ehunekoetan, positiboa izan da helburu ekonomikoa kontuan hartuta sailkatutako ondasun-talde handi guztientzat, *Energiarentzat* izan ezik, adar hori % 24,9 jaitsi baita. *Kontsumo-ondasunen* prezioak % 10,7 igo dira. Izan ere, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* prezioak % 11,4 igo dira, eta *Kontsumo-ondasun iraunkorrenak* % 6,3. *Ekipo-ondasunen* prezioak % 4,8 hazi dira, eta, azkenik, *Bitarteko ondasunen* prezioak % 1,2.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie parte hartu duten establezimendu guztiei, egindako ahaleginagatik. Haiei esker, hil honetako indizea laginaren % **84,06**ko estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62